



Arartekoaren ebazpena, 2011ko uztailaren 29koa. Horren bidez, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari gomendatzen zaio ireki dezala diziiplina espediente bat, behar bezala artxibatu ez zen salaketa bat ikertzeko, eta gai deontologikoen arloko kexak kudeatu eta ebazpenak arrazoitzeko gomendioak berriro aipatzen dizkio.

Aurrekariak

1. 2009ko abenduaren 15ean Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren aurrean kexa bat aurkeztu zuen pertsona batek erakunde honetara jo du eta esan digu ez dagoela batere ados haren abokatuaren jarduerarekin. Horretarako, aipatu erakundera idazki bat bidali zuen eta, bertan, egiaztatu ahal izan genuenaren arabera, jarduera horrek, haren ustez, eragin zion kaltearen ziozko erantzukizun zibila erreklamatu ondoren, jarduera hori kritikatu zuen, printzipio deontologikoak kontuan hartuta.

Gobernu Batzordeak, erantzukizun zibileko espedientea ireki ondoren, espedientea artxibatzea erabaki zuen 2010eko martxoaren 10ean, abokatuak ez baitzion erantzunik eman hark erabaki zezan eskatuz elkargoari helarazitako idazkiari. Erreklamatzailaren ustez, korporazioak diziplinazko jarduera bat hasi behar zukeen, aintzat hartuta bere idazkiak salatzen zuena, hain zuzen ere, printzipio deontologikoen arau-haustea zela.

2. Erakunde honek, 2010eko maiatzaren 12an, elkargora jo zuen gure irizpidearen berri emateko. Beste aldi batzuetan dagoeneko eman genion gure irizpidearen berri eta, horren arabera, abokatuen jokabide profesionalen gaineko herritarren kexak ikuspegi bikoitza kontuan hartuta aztertu behar dira: bai erantzukizun zibilaren ikuspegitik, bai deontologiatik ere. Horrez gain, aipatu genuen erreklamatzailak korporazio horren aurrean aurkeztu zuen idazkiak argi eta garbi jartzen zituela agerian kexaren bi alderdiak. Horregatik, azkenik, aditzera eman genuen, aztergai den kasuan horrela jokatu izan ezean, komenigarria izango litzatekeela horren inguruan informazio-eginbideak hastea, diziiplina espedientea abiarazi behar ote zen erabakitzeke.
3. Elkargoak 2010eko ekainaren 1ean erantzun zigun eta esan zigun hizpide dugun abokatuaren haren arbitrajepean jarri ez zenez, ezin zuela eskatutako erantzukizun zibilaren gaineko arbitraje izapiderik hasi. Horrez gain, adierazi zuen ezin izan zuela esku hartu bezeroek agindutako kontuak jorratzeko abokatuak dituzten moduetan eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraiki, ezin zela ulertu erreklamatzailaren





idazkiak abokatuaren diziplina erantzukizuna eskatzeko benetako uzia barne hartzen zuenik.

4. Horren ondorioz, erakunde honek berriz ere elkargora jo zuen 2010eko irailaren 30ean. Zenbait argudio planteatu genizkion eta, errepikapenak saihestearren, ohar juridikoen atalean aipatuko ditugu eta, horien arabera, ez gentozen bat korporazioak diziplinaren arloan ez jarduteko emandako arrazoiekin. Horregatik, berriz ere egin zezan eta erakunde honi emaitzaren berri eman ziezaion esan genion.
5. Elkargoak 2010eko abenduaren 3an erantzun zuen eta esan zuen, Arartekoak adierazi zion moduan, Elkargoko Deontologia Batzordeari kasuaren berri eman ziola. 2011ko maiatzaren 18an, eta berririk ez genuela kontuan hartuta, erakunde honek elkargoari eskatu zion ikerketa zein egoeratan zegoen adieraz ziezaion eta, hala bazegokion, lortutako ondorioen berri eman ziezaion. Dekanoak ekainaren 1ean erantzun zion eta esan zion Gobernu Batzordeak maiatzaren 30eko saioan Deontologia Batzordearen proposamena aintzat hartu zuela. 2011ko ekainaren 10eko idazkiaren bitartez, elkargoak Arartekoari saio horretan hartutako ebazpena bidali zion eta, aipatu ebazpenaren arabera, bidegabeba da diziplina prozedura hastea, bi gogoetak oinarri dituen salaketaren artxibatzea aginduz.

“1.- Porque no se aprecia que el Letrado denunciado haya violado norma deontológica alguna en la estrategia de defensa seguida en los procedimientos judiciales en los que intervino.

2.- Porque, a la vista de la condena penal impuesta al denunciante por amenazas al Letrado denunciado y a la madre de éste, la denuncia que ahora se ordena archivar no es más que una abusiva utilización por parte del denunciante del derecho que el ordenamiento legal le concede”

Erantzun hori ikusirik, Arartekoak uste zuen gure esku-hartzea amaitutzat eman behar genuela eta, hala, honako gogoetak oinarri dituen gomendio hau egin zuen:

Gogoetak

1. Hasteko, esan behar dugu ez dagokigula elkargoek, kode deontologikoaren arabera, haien aurrean salatutako profesionalen egitekoaren inguruan aurrera eramaten dituzten balorazioak berraztertzea. Bada gure eginkizuna, ostera, salaketa horiek arduraz eta legeak ezarritako prozedura betez azter daitezten, eta, legeak agintzen duenez, haiei buruzko ebazpenek erantzun oinarriduna eman diezaieten salaketa horiek aurkeztutako gai guztiei.

Horrela, justizia administrazioaren zerbitzu publikoko erabiltzaileen eskubideentzat, zerbitzu horretan esku hartzen duten profesionalak taldekatzen dituzten korporazioek betetzen duten berme-funtzioaren oinarritzko alderdi bat



babestu nahi da. Hala, elkargokideen jarduera pareen kontrol deontologikoaren pean jartzerakoan, legeak dio horiek direla hain zuzen legea *lex artis* izenekoaren bat etorrita betearaz dadila nahi duten lehenengo interesdunak eta, ildo horretan, herritarrek herri-administrazioekin dituzten harremanetan haien legezko eskubideak eta interesak babesten dituzten erakundeak, adibidez, Ararteko erakundea, ados daude xede horrekin.

2. Beste espediente batzuetan adierazi dugun moduan, elkargo profesionalak, zuzenbide publikoko korporazio diren heinean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen baitan daude, horren 2. artikulua ezartzen duenaren arabera. Esku artean dugunaren moduko erabakien araudiari lotu beharra ezartzen dute Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Euskal Legearen 48. artikulua eta Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoko Estatutuek (hauei heltzen die, aipatu ondorioetarako, delako arau autonomikoaren 19.5 artikulua eta horren 91.2 artikulua halaxe xedatzen du modu espezifikoa diziplina arloari dagokionez). Aipatu ditugun bi legeek elementu arautuak sartzen dituzte erreklamazioari dagokion elkargo jardueran. Elementu horiek oso garrantzitsuak dira elkargoak kexa baloratzeko baliatu zuen modua baloratzeko eta, hori guztia abokatuaren jokabideak merezi duen balorazioa alde batera utzita edo ebazpena emateko igaro den denborak, hala badagokio, behin-behineko erantzukizun deontologikoen preskripzioa eragin ahal izan duela aintzat hartu gabe.

Arauzko oinarri horiek abiapuntu gisa hartuta, gure ustez administrazio egokiaren printzipioekin bat ez datozen kudeaketako bi alderdi agerian jarri behar ditugu:

- alde batetik, eta gai horren gainean artxibatze erabakiaren lehenengo aurrekarian oker aipatzen denaren aurrean, abokatuaren aurka jarritako salaketa ez zen kalte-ordain ekonomikoak eskatzeko bakarrik; aitzitik, hasiera-hasieratik zegoen argi haren eduki deontologikoa. Izan ere, badirudi elkargoak geroago halaxe onartzen zuela, bestela ezin baita ulertu zergatik ireki zuen diziplina arloko ikerketa, Arartekoak hala eskatuta. Hala ere, ikerketak atzerapena jasan zuen eta hori ez zen hala gertatuko, elkargoak hasiera-hasieratik erakunde honek gai horren inguruan gomendatutako irizpideak aplikatu izan balitu.
- bestetik, azkenik dekretuz agindutako artxibatzeak, gure ustez, arrazoiketa falta du.

Ondorengo ataletan halakoa zergatik iruditzen zaigun azalduko dugu.

3. Aipatu alderdietako lehenengoari dagokionez, elkargoaren azken ebazpenari egozten diogun akatsa eta gure lankidetzak eskaerari erantzunez bidalitako lehenengo erantzunean jazotakoa berberak dira, arau-hauste deontologikoagatik bideratutako diziplina erantzukizun posibleak arazte aldera hasiera-hasieratik



ikerketa bat ez irekitzea justifikatzeagatik. Ondorioz, berriz ere erabaki hark oinarri izan zituen irizpideak partekatzea eragotzi ziguten arrazoiak azpimarratu behar ditugu.

- Elkargoak uste zuen kexagileak abokatuari erantzukizun zibila bakarrik eskatu ziola. Hortaz, bat zetorren ebazpen bakarra ildo horretan arbitraje bat saiatzen bideratzearena zen, 30/92 Legearen 89.2 artikuluari jarraiki. Ildo berean, lege horren 70.1 artikulua aipatu zuen *“Printzipio deontologikoak non daude?”* -idazkia perpaus horrekin amaitzen da- esaldiak oinarri nahikoa ez zuela ondorioztatzeko, hain zuzen, salatutako jardueraren kode deontologikoaren gaineko egokitzapena zalantzan jarri nahi izatea ulertzeko.

Hala ere, erantzukizun zibilaren eskaera deontologia-profesionalaren aurkako jarduera egoztean datzan heinean, egozketa horrek, baieztatuko balitz, diziplinaren alorrean garrantzia izango luke. Horregatik, egokia da diziplinaren arloan ikerketa bat irekitzea, betiere, arrazoi horrengatik RC(r)(e)n erreklamazioak aurkezten badira eta salatazaileak modu esplizituan eskatzen ez badu ere. Legelarien Euskal Kontseiluak onartu eta bere egin duen irizpide bat da eta Arartekoak zenbait ebazpenetan, apirilaren 11ko 50/97 zk.tik aurrera gomendatu duena (1253/1996/21 espedientea, Eusko Legebiltzarrarentzako 1998ko gure txostenaren 246. orrialdean, gaztelaniazko bertsioan, kontsulta daiteke). Horietako azkenak, hain zuzen Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoari zuzendutakoak (28/2008 Gomendioa, abenduaren 9koa) zioen aipatu korporazioak, antzeko kasu batean, oker jardun zuela, salaketa ez zuelako hasieratik ikuspegi deontologikotik izapidetu, erantzukizun zibileko ikuspegiak gain. Bestalde, esku artean dugun kasuan, erreklamazioa RC(r)(e)n eskaera gisa egin bada ere, abokatuari ustezko irregulartasunak egozteaz gain – egiaztatuz gero diziplinazko arau-haustea izango litzateke–, berariaz galdetzen da *“Non daude printzipio deontologikoak?”*. Galdera erretorikoa da -erreklamatazaileak abokatuaren jardueraren gaineko haren kritika egin eta berehala planteatutakoa- eta jarduera horren eta aipatutako printzipioen arteko kontraesana salatzen duen zentzua bakarrik ulertu behar da. Beraz, ez dago aurkeztutako kexaren dimentsio bikoitzaren gaineko zalantzarik.

- Horrez gain, korporazioak honako hau aipatu zuen: *“el hecho de que este Colegio no puede intervenir en la forma en que sus colegiados llevan profesionalmente los asuntos que les encargan sus clientes por rechazarlo el principio de derecho a la defensa que confiere al Abogado el art. 24 de los Estatutos por los que se rige este Colegio de Abogados de Guipúzcoa.”* Bistakoa da estatutuek ez dituztela hizpide printzipio deontologikoak urratzearen zioz bideratutako salaketen inguruko abokatuaren jarduerak. Izan ere, hala izango bazen, deontologia batzordeen zereginak ez luke edukirik izango.





lido horretan, aipatutako gomendioetako azkenak zioen, diziplina ahalmena korporazioari bakarrik badagokio [Elkargo Profesionalei buruzko 18/1997 Euskal Legearen 19.3 eta 24 d) artikulua eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Estatutuen 61.2 eta 92.1 artikulua], elkargoa ez dela abokatuen diziplina erantzukizuna sustatzeko ekimena hartzeko eskumena duen organo bakarra. Hala ezartzen duten estatutuek, 103.1 artikuluan kide baten aurkako diziplina prozedurak abiarazteko bideak arautzean, interes legitimoa duen hirugarren baten salaketa berariaz jasotzen da besteak beste. Estatutuetako 105.3 artikulua araberako, abokatuaren jardura profesionalak kalte egin diola alegatzen duen bezero batena litzateke kasu hori. Agerikoa da, hartara, elkargoko araudiak berak onartzen duela erabiltzaileak izan dezakeela ekimena diziplina prozedura abiarazteko -instruktoaren proposamenak ikusi eta gero, batzarrak har ditzakeen erabakiak gorabehera, diziplina espedientea abiaraztea dela zein, lehen azterketa egin eta gero, kasua artxibatzea dela-.

Ondorioz, erakunde honek aipatu estatutuetako 24. artikulua xedatzen duen printzipioa partekatzen badu ere, ezin du aintzat hartu hizpide dugun kasuan korporazioaren jardura baloratzeko.

Horregatik guztiagatik uste dugu elkargoak diziplina arloko informazio-eginbideak hasiera-hasieratik ireki behar izan zituela. Hala egin ez zuenez, hasierako jarduerak kontrolen eraginkortasunari kalte egin zion. Kontrol horien bidez ordenamenduak auzitegi eta epaitegietako erabiltzaileen eskubideen eraginkortasuna bermatu nahi du. Hortaz, gure betebeharra da hori agerian jartzea, huts hori berriz ere etorkizunean gerta ez dadin.

4. Jarraian elkargoak, azken ebazpenean, diziplina prozeduraren hasiera xedatzea bidegabetzat jotzeko oinarri dituen arrazoiak aipatuko ditugu. Ezin dugu ahaztu salatutako jardueraren balorazio deontologikoaren gaineko elkargoetako ahalmenek -horien zabaltasuna gogoeta hauen lehenengoak onartzen du- izaera arautua dutela eta kasu honi dagozkion ondorioetarako, guztiaren gainetik, arrazoiketa eskatzeari eragiten diola. Administrazio egoki ororen oinarritzko elementu bat da, diskrezionaltasunaren eta arbitrariotasunaren arteko faktore bereizlea den neurrian. 30/1992 Legearen 3.5 artikuluan xedatutako gardentasun printzipioaren oinarritzko osagaia da eta haren irismena lege horren 3.2 artikuluan jasotzen den herritarrentzako zerbitzuaren irizpide gisa baloratu behar da.

Erakunde honek halaxe jaso zuen Bizkaiko Abokatuen Elkargori egindako 2007ko abenduaren 11ko gomendioan; bertan azpimarratu zen artxibo bat arrazoitzeko betebeharra espediente edo informazio-eginbide batzuetan dautzan jardueretatik bereizten dela. Aipatutako ebazpenak honakoa dio:



“Gorago aipatutako printzipioen argitan, ondorio hauetarako garrantzitsuena da jakinarazitako erabakiak Bazkuneko gobernu organoaren ebazpena ezagutarazten duela; horren bidez, elkargokide baten lanbide jarduerari buruzko arazoa ebazten da eta, hala, irregulartasunik egon ez dela erabakitzen da.

Ilido horretatik, Diziplina Prozedurari buruzko Erregelamenduak informazio eginbideetatik haratago ez joateko aukera aipatzen duenean, premia nabari bati erantzuten dio; alegia, bereizi egin behar dira, batetik, eskubideak bermatzen dituen bideratze prozesu zehatza behar duten kexak eta, bestetik, zertxobait ikertuta, oinarririk ez dutela edo hutsegite arina izan dela agerian uzten duten kexak. Baina kasu batean edo bestean gauden erabakitzeak, datuak eta informazioak aztertu behar dira eta horiek, nolana ere, arrazoituta egon behar dute, hala izan ezean, ez bailegoke modurik erabakiak arbitrariotasunaren arrazoizkotasun eta interdikzio kanona errespetatzen ote duen jakiteko. Azken finean, honako ondorio zentzugabe hau atera ahal izango genuke: nahikoa izango litzatekeela espedienterik ez zabaltzea kexak ebazterakoan gardentasun printzipioa saihestu ahal izateko. Horrek aipatu erregelamenduko 7.4 artikuluko azken intzisoan egiten den aurreikuspena hutsalduko luke, nekez jar baitaiteke errekurtsorik arrazoitu ez den erabakiaren aurka.”

5. Kasu honetan irizpide horiek aplikatuta, esan behar dugu jarduera irekiak arau deontologikoak urratzearen ondotik bideratutako salaketa batek eragin bazituen, horien artxibatzea behar bezala arrazoituta egongo litzatekeela, modu logikoan eta kongruente batean azalduko balitz zergatik jardundakotik ondorioztatzen den ezin dela urratze hori antzeman salatutako jardueran. Hala ere, ez da horrela elkargoaren erabakia oinarri duten eta ebazpen honen 5. artikuluan jasota dauden gogoeta hauen kasuan.

- Lehenengoak hala dela baino ez du berresten, egindako jarduera horiek kontuan hartuta ondorio hori ateratzeko arrazoirik eman gabe eta jarduera horiek zein izan diren aipatu gabe.
- Bigarrenak dio salaketa eskubidearen abusuaren adierazle dela. Hala ere, baieztapen hori funtsatzeko, salatzailearen zigor penala baino ez da aurkeztu, adierazten denaren arabera, abokatuari eta haren amari egindako mehatxuengatik. Gertaerak halakoak izan baziren, ez dute zerikusirik salaketak hizpide duen arau-hauste deontologikoarekin. Hortaz, ez kongruentea da horiek oinarri hartzea ikertzea bidezkoa ez dela ulertzeko. Hala izan ez bazen, onartu beharko genuke pertsona baten ustez kaltetu zion pertsonak mehatxatzen badu kalte hori jazo izanaren aukera alde batera uzten duela. Gure ustez, ordea, funtsezkoa da bereiztea ikerketarako beharra eta, gaitzesgarriak izan badaitezke ere, salaketak hizpide dituen gertakariekin zerikusia ez duten erreklamatzailaren egintzen abokatu jarduera. Horregatik, arrazoi beragatik abokatuak egin ahal izan zituen akatsek ez lituzkete inoiz



justifikatuko haren eta haren familiaren aurkako biraoak edo mehatxuak; horiek egon izana ezin da izan arrazoi balioduna akats horiek gertatu ez zirela ulertzeko.

Azaldutako guztitik ondorioztatzen da salaketa honen izapidean, baita haren ebazpenean ere, gure ustez, abokatuaren jardueraren kontrol deontologikorako sistema indargabetu duten zenbait gabezia antzeman direla. Pertsonen eskubideak ahalik eta gehien sustatu nahi ditugunez, gure betebeharra hori agerian jartzea da, halako zerbait berriz gertatzeko aukerak murrizten laguntze aldera, etorkizuneko salatzaileri ez ezik, erreklamazioen bidez jarduera egokia zalantzan jartzen zaien profesionaleri ere kalterik eragitea saihestearren.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

25/2011 GOMENDIOA, uztailaren 29koa, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoari egin

1. Gipuzkoako Abokatu Elkarteak ez zuen zuzen jokatu, salaketa lehen unetik -erantzukizun zibilaren ikuspuntutik izapidetzeaz gain- deontologiaren aldetik izapidetu ez zuelako; horrek diziplina erantzukizun posibleen preskripzioaren arriskua eragin zuen. Horregatik, berriro ere gomendioa egin dugu. Alegia, elkargoko kideren baten jardura profesionalaren inguruan jasotzen duen salaketa oro arduraz, bi ikuspegietatik, azter dadin.
2. 2011ko maiatzaren 30eko Elkargoaren Gobernu Batzordearen erabakiak, jardundakoa artxibatzea agintzen duenak, ez du behar bezala arrazoitzen diziplina prozedura abiaraztea bidegabea dela dioen adierazpena. Horregatik, prozedura hori ireki dadin gomendatzen dugu, salatutako jardueraren kontrol deontologiko egokiaren mesedetan.

